

## Haragiaren prezioa igo, ingurumen-kostua bere gain har dezan

Klima-larrialdiari aurre egiteko, ezinbestekoa da giza jarduera guztien ingurumen-kostuari erreparatzea. Baita nekazaritza eta abeltzaintzaren kostuari ere. [Municheko Unibertsitate Teknikoko ikertzaileek egin dute ariketa](#), eta ondorioa oso argia da: haragiaren prezioak igo egin behar dira, arrakala handia baitago merkatu-prezioen eta kostu errealen artean, kostu klimatikoak ere kontuan hartzen direnean.

Emaitzek erakusten dute animalia-jatorriko produktuak direla berotegi-efektuko gasekin lotutako kosturik altuenak dituztenak (2,41 €/kg). Haien atzetik esnekiak daude (0,24 €/kg), eta ingurumen-kosturik txikiena landare-jatorriko produktu ekologikoenak (0,02 €/kg).



Haragi ez-ekologikoan, egungo prezioarekiko % 146ko gainkostua ezarri beharko litzateke. ARG.: RitaE/Pixabay.

Ikerketan, nekazaritza-sistemen eta elikagai-kategorien arteko bereizketa egiteari eman diote garrantzi handia, eta hori da, hain zuzen, ikerketaren ekarpen handiena; izan ere, horretan oinarrituta igo beharko lirateke prezioak. Emaitzen arabera, ohiko haragiaren prezioa %146 igo behar litzateke; haragi ekologikoarena, % 71; esnekiena, % 91; eta barazki ekologikoena, % 6 besterik ez. Kalkuluetan nekazaritza-sistemaren aldagaia sartu izanak aukera ematen du elikagai bakoitzari dagokion prezio-igoera ezartzeko. ●

## COVID-19an sexuak duen eragina aztertzeko eskatu dute

ARS-CoV-2ak eragiten dituen ondorioak ez dira berdinak gizonetan eta emakumeetan; baina emakumeak ez dira aintzat hartzen tratamenduen eta txer-toen ikerketetan, [Science aldizkarian salatu dutenez](#).



Azaldu dutenez, oro har gizonek erantzun immunitario apalagoa izaten dute, eta errazago infektatzen dira emakumeak baino. Emakumeek, ordea, gogorrago erantzuten dute, eta, batzuetan, erantzun hori gehiegizkoa ere izan daiteke. Bereizketa horren atzean, sexu kromosomikoa eta hormonak daude.

COVID-19a ez da salbuespena, baina, oro har, datuak ez dira bereizita aztertzen ari, eta ikerketetan ere ez dira kontuan hartzen ari diferentzia horiek. Hortaz, ez dago jakiterik, esaterako, sendagai bat aproposagoa ote den sexu baterako edo besterako, edo dosiak egokitu egin behar ote diren. Eta, txertaketak hasi zirenean, ez zekiten seguruak ote ziren haurdunentzat eta bularra ematen ari zirenentzat. Gauza bera gertatzen zaie transexualei.

Bestalde, ikertzaileek ohartarazi dute emakumeen eta gizonen areko diferentzia sozialak eta portae-razkoak ere kontuan hartu behar liratekeela, horiek ere eragiten baitute infektatzeko arriskuan eta gai-xotasunaren bilakaeran. ●



[Albiste gehiago webgunean](#)